

# Bertan dugu Tokio

MANGA ETA  
ANIMEA

...urruti Erroma” zioen Doraemon marrazki bizidunei sarrera ematen zien abestiak. Askok jakin ez arren katu kosmikoaren abenturak, telebistako beste marrazki asko legez, anime generokoak dira. Manga, animea, cosplaya... Kultura japoniarrak geroz eta zaletu gehiago du gurean.

GORKA BEREZIARTUA



**AITZOL MARTIARENA ZARAUZTARRAK** *Dragoi Bola* ikusiz heldu zion marrazki bizidun japoniarren amuari. Animera zaletu zen eta animaziozko filmak ikusten hasi zen azpitoluekin. Hortik komikira: lagun batekin Donostiara joaten hasi zen, komikiak erosten. Irakurri eta irakurri, “eta azkenean biziatu”. Baina aukera gutxi dago horrelako komikiak euskaraz irakurtzeko; bestelakoetan ere eskaintza ez da oso zabala. Besoak gurutzatuta norbaitek argitaratu zain egon ordez, berak euskaratzea erabaki zuen. Internetek zabal-kunderako aukera asko eskaintzen ditu eta <http://mangauskaraz.blogspot.com> helbidetan bloga sortu zuen, itzulitako mangak jendearen esku uzteko.

Japonian argitaratzen diren komikiak eskaneatu eta sarrera igotzen dituzte hango irakurleek. Beste herrialdeetako zaletuek euren hizkuntzetara itzultzen dituzte ondoren. “Nik Photoshopa erabiltzen dut: irudiak garbitzen ditut eta komentarioak euskaratu”. Lan handi

*Dragoi Bola* eta *Arale* Euskal Herrian oso ezagunak diren bi anime dira. Kultura japoniarra aspaldidanik egon da gurean, baina Interneti esker zaletuak gehiago ari dira elkartzen orain.

samarra? Martiarenak dio batzuetan baietz, hala izaten dela, baina borroka asko azaltzen diren eszenetan testu askorik ez dela itzuli behar. Zarauztar gaztea ez da zeregin horri bere denboraren parte bat eskaintzen dion bakarra; berak eraman gaitu Euskal Encodings elkartearen Interneteko forora ([www.euskal-encodings.com](http://www.euskal-encodings.com)). Han jendeak itzuli dituen lanen berri ematen du. Bisitariak denetik aurkituko du foro horretan, lan handia egiten ari dira, zalantza gutxi. Besteak beste, mundu osoan arrakasta izan duten *Death Note*, *Altxairu alkimista* edo *Heroiak* moduko komikiak eskuratzeko aukera dago, doan eta kalitate onean. *Death Note* du Martiarenak gogokoena. “Edozein engantxatzen du. Manga askotan borroka pila dago, baina hau intelgentzia frogatu modukoa da”.

## Mangantolakuntza

1990eko hamarkadaren bukaera zen Jasone Irastorzak, hamalau urte artean, Bilbon Kabu-



ki izeneko denda aurkitu zuenean, Concha Jenerala kalean. Bestelako garaiki ziren: Internetik ez, hiruzpalau aldizkari eta zaletuek argitaratu zezaketen apurra. Baziren manga publikatzen zuten argitaletxeak, orain baino gutxiago izan arren. Gero Internet etorri zen: zuzenean filmak deskargatzeak, foroetan zaleztasun bera zuen jendearekin topo egiteak, asko azkartu zuen mangaren hedapena. “Lehen oso minoritarioa zen. Orain, jendea agian ez da oso-oso zaletua ere, bizpahiru komiki irakurtzen dituzte eta telesail batzuk jarraitu, baina Interneten eragina harrigarria da”.

Irastorzak azaldu duenez, belaunaldi askok txikitatik ikusi izan ditu marrazki japoniarrak. *Mazinger Z*, *Candy Candy*, *Heidi*... Manga beti hor egon da, baina jendea ez zen horretaz jabetu *Dragoi Bola* eta *Sailor Moon* teleailek

*Death Note* komikiaren euskarazko itzulpena da goikoa. Japoniako irakurleek eskaneatutako komikiak Internet bidez zabaltzen dira eta zaletuek euren hizkuntzetara itzultzen dituzte. Euskarazko itzulpen asko dago [www.euskal-encodings.com](http://www.euskal-encodings.com) webgunean.

arrakasta izan zuten arte. Marrazki bizidunak umeen zaletasuna izatetik neska eta mutil kozkorren eremura pasa ziren eta hortik jende helduarenganako urratsa emateko ez zen denbora asko behar izan.

27 urte ditu orain Irastorzak eta Soshiki elkarteko sortzaileetako bat da. Manga eta animearen inguruko topaketak eta ekitaldiak antolatzen ditu elkarte horrek, joan den urteko urrian Amorebietan antolatutako Mangamore jaialdia barbarako. Aurreneko edizioa izan zen iazkoa, eta arrakasta zenbakiek erakusten dute: 9.000 pertsona inguru pasa ziren asteburu bakarrean. “Nik hasieran esaten nuen ‘hona ez da kristorik ere etorriko’ eta azkenean, begira”. Dagoeneko martxan da 2008ko jaialdia. Irastorzak uste du Euskal Herrian dagoen zaletasunarekin posible izango litzatekeela ekitaldi handiagoak antolatzea, baina erakunde publikoek ez dutela horren aldeko apusturik egiten –Amorebietako Udala salbuespena da bere ustez–. Komiki japoniarra ez baita kultur adierazpena askoren ustez.

## Euskal Herriko manga zaleen webgune batzuk

- ✓ Tarasu elkarte (Bilbo): [www.tarasu.es](http://www.tarasu.es)
- ✓ Motsukora elkarte (Barakaldo): [www.motsukora.org](http://www.motsukora.org)
- ✓ Kakumei elkarte: [www.kakumei.tk](http://www.kakumei.tk)
- ✓ Tenkai elkarte (Gasteiz): [www.asotenkai.org](http://www.asotenkai.org)
- ✓ Chikara elkarte (Gasteiz): <http://asociacionchikara.com>
- ✓ Lu-k zalearen bloga (Baiona): [www.mukyaa.com](http://www.mukyaa.com)
- ✓ Marugame elkarte (Gipuzkoa): [www.marugame.org](http://www.marugame.org)
- ✓ Myaku elkarte (Iruñea): [www.fanzinemyaku.blogspot.com](http://www.fanzinemyaku.blogspot.com)
- ✓ Navarmanga (Nafarroa): [www.navarmanga.org](http://www.navarmanga.org)
- ✓ Mangamore topaketak (Amorebieta): [www.mangamore.net](http://www.mangamore.net)
- ✓ Romudo City denda (Deustu): [www.romudocity.com](http://www.romudocity.com)

### Ikuspuntu helduagoa

Baina zerk egiten ditu manga eta animea erakargarri? Jose Luis Asensio etxarriarra batxilergoan hasi zen zaletzen, lagun batek aldizkari batzuk utzi zizkionean. Lehenago bestelako komikiak irakurtzen zituen, baina manga diferentea zela ikusi zuen. “Utzi zizkidaten komikiek ikuspuntu helduagoa zuten. Inbestigatzen hasi eta nire gustukoak aurkitu nituen”. Orain Myaku elkarteko kidea da. Denboran zortzi urte atzera jo behar da talde



horren sorrera ezagutzeko: komiki zale batzuk elkar ezagutu eta biltzen hasi ziren; batzar informalak egiten zituzten hasieran, baina joan den urtetik elkarte modura ari dira lanean. Komikien kultura zabaltzea dute helburu, manga ere bai, noski, baina bestelakoak bazterrean utzi gabe. Fanzine bat ere argitaratzen dute, Asensiok azaldu duenez marrazkilari berriei leiho bat irekitzen saiatzeko.

### Telebista kameren bazka

Myakuko kideek izan dute harremanik Euskal Herriko beste komiki eta manga elkarrekin. Getxoko Komiki Azoka da horretarako dagoen bilgunerik indartsuena. Asensiok azaldu duenez, baina, hedabideek kultura japoniarraren zaletuak *rara avis* modura erretratatzeko dituzte. Jende asko euren pertsonaia gogokoenez mozorrotuta joaten da horrelako topaketetara –cosplay esaten zaio zaletasun horri– eta telebista kameren bazka bihurtzen dira. “Medioek

lazko Mangamore topaketetan cosplay karaokean parte hartu zuten pertsonak. Zaletu batzuk euren gustuko pertsonaiak ahalik eta modu fidelenean imitatzen saiatzen dira antolatzen dituzten topaketetan.

Hedabideek *rara avis* modura erretratatzeko dituzte kultura japoniarraren zaleak

## Hiztegi txikia

- ✓ **Otaku:** Esanahi negatiboak ere izan ditzakeen arren, hitz hau erabiltzen da manga eta animearen zaleak izendatzeko.
- ✓ **Mangaka:** Manga komikien egileak izendatzeko.
- ✓ **Shojo:** Neska gazteei zuzendutako istorioak kontatzen dituzten manga eta animeak.
- ✓ **Shonen:** Mutil gazteei zuzendutako istorioak kontatzen dituzten komiki eta animazio filmak.
- ✓ **Josei:** Emakume helduentzako komiki eta animazio filmak sailkatzen dira genero honetan.
- ✓ **Seinen:** Gizon helduei zuzendutako mangak eta animeak.
- ✓ **Hentai:** Manga pornografikoak.
- ✓ **Dojinshi:** Profesional ez diren marrazkilariak egindako mangak.

nahi dute jendeak beraien notiziak irakurtzea, eta horretarako ahalik eta gauza arraroenak ateratzen dituzte”.

Jasone Irastorza cosplayerra da eta parte hartu duen lehiaketa gehienak irabazi dituela azaldu du. Gustuko duen manga pertsonaia aukeratu, ahalik eta xehetasun handienarekin aztertu eta bera bezala janzten da zaletuen topaketetan. Horren zergatia esplikatzeko konparazio bat egin du: “Komiki azoka bat niretzako festa bat baldin bada, zergatik ez naiz jantziko festa horretarako?”. Bestelako festetan ere jendea nolabait disfrazatuta ateratzen dela, alegia. Cosplay-erren artean –eta oro har manga eta anime zaleen artean– elkarri *friki* esateko ohitura dagoela azaldu du Irastorzak, lagunarteko giroan. Baina azpimarratu du beraiek oso jende normala direla, mundu honetan bizi direla, ez komiki baten barruan. “Ez dut egun osoan japonieraz kantatzen!”. ■

